

BERRESKURATZE, ERAIDAKETA
ETA ERRESILIENTZIA PLANA
GAUZATZEKO ESKATZEN
DIREN IRUZURRAREN
AURKAKO, INTERES-
GATAZKAKO, FINANTZAKETA
BIKOIZTEKO ETA ESTATU-
LAGUNTZETAKO ETA
INGURUMEN-KALTE EZ-
NABARMENENKO BALDINTZAK
BETETZEKO NEURRIEN PLANA

1. SARRERA
2. PLANAREN HELBURUAK, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK
 - 2.1 HELBURUAK ETA APLIKAZIO-EREMUA
 - 2.2 DEFINIZIOAK
3. IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO TRESNAK ETA PROZESUAK
 - 3.1 TESTUINGURUA
 - 3.2 PREBENTZIO TRESNAK
 - Iruzurraren aurkako borrokarako adierazpen instituzionala
 - Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna
 - Arriskuaren eraginaren eta probabilitatearen hasierako ebaluazioa
 - Kode etikoa eta jokabide-etikoa
 - Prestakuntza eta sentsibilizazioa
 - Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea
 - Barne-kontrolako sistema
 - 3.3 DETEKZIO-TRESNAK
 - Komunikazio-sistema
 - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)
 - Faltsututako dokumentuak detektatzea
 - 3.4 ZUZENKETA- ETA JAZARPEN-PROZESUAK
4. INTERES-GATAZKAK SAIHESTEKO PROZESUAK ETA TRESNAK
 - 4.1 TESTUINGURUA
 - 4.2 PREBENTZIO ETA DETEKZIO TRESNAK
 - Interes-gatazken modalitatei buruzko informazioa ematea inplikaturako alderdiei
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)
 - Interes-gatazka posiblearen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentua
 - Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea
 - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)
 - 4.3 ZUZENKETA-TRESNAK
 - Ex post egiaztapen-kontrolak
 - Komunikazio-sistema
 - Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea
5. ERANSKINAK
 - I. ERANSKINA: Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzionala
 - II. ERANSKINA:
 - II.A. ERANSKINA: Arriskuen autoebaluazioaren emaitza

- II.B. ERANSKINA: Arriskuen ebaluazioa, Europako Gizarte Funtzaren arriskuak ebaluatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko tresnaren bidez egina (Ex Ante arrisku-matrizea)
- III. ERANSKINA: Suspertze, transformazio eta erresilientzia planaren esparruko erantzukizunpeko adierazpenak
- IV. ERANSKINA: Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)
- V. ERANSKINA: Kode etikoa eta jokabide-kodea

1. SARRERA

Europako Kontseiluak onartu zuen, 2020ko ekainaren 21ean, Next Generation EU programa sortzea. Programa hori pizgarri ekonomikora bideratutako tresna da, eta Europar Batasunak bere gain hartutako finantza-arloko neurririk garrantzitsuenetako bat da, 2020an COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko. Datozen urteetan ere izango ditu ondorioak programa horrek. Next Generation EU finantza-tresnak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onetsiak, bere baitan hartzen du, elementu nagusi gisa, «Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismo» bat (hemendik aurrera, BEM): haren helburua da Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, hala, susperraldi jasangarri eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoekin gobernantza partekatuan. BEM Berreskuratze Funtsaren zuzkidura osoa 672.000 milioi eurokoa da; horietatik 360.000 milioi maileguetara bideratzen dira eta gainerako 312.000 milioiak itzuli ezin diren transferentziak izango dira.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa da Berreskuratze Funtsaren muina. Haren helburua da Europar Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, suspertze iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Europar Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzea.

BEMak honako lau helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzea; Europar Batasuna osatzen duten estatu kideen erresilientzia eta doitzeko gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak medeatzea; eta trantsizio ekologiko zein digitalari laguntza ematea. Horiek guztiak bideratuta daude EBko ekonomien hazkunde potentziala berreskuratzea, krisiaren ondoren enplegua sortzeko politikak sustatzea eta hazkunde jasangarria bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak berreskuratze eta erresilientzia plan bat diseinatu behar du, helburu horiek lortzeko behar diren erreformak eta inbertsio-proiektuak jasoko dituen. Espainiar Estatuko Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, BEEP) zeharkako lau ardatz ditu, 10 politika-palankatan egituratuta, eta horien barruan hogeita hamar osagai biltzen dira, Planaren inbertsioetarako eta erreformetarako programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen dutenak:

- Trantsizio ekologikoa.
- Eraldaketa digitala.
- Gizarte- eta lurralde-kohesioa eskuratzea.
- Genero-berdintasuna.

BEEPn planteatutako ekimenak ezarritako epean gauzatzeko (2021etik 2026ra), inplikaturako administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste:

- Planean sartutako proiektuen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea.
- Kudeaketa-sistema bat konfiguratzea eta garatzea, Europako Batzordeko zerbitzuei egindako ordainketa eskaerak modu eraginkorrean izapidetzeko, eskatutako estandarrak errespetatuz, bai ikuspegi formaletik, bai operatibotik.
- Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako prebentzio-, detekzio- eta borroka-mekanismoak indartzea, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371

Zuzentarauaren (EB) arabera definituak. Zuzentarau horren transposizioa egiteko epea 2019ko uztailaren 6an amaitu zen.

Toki-erakundeek, BEM mekanismotik datozen diru-funtsekin osorik edo partzialki finantzatutako proiektuen onuradunak diren aldetik, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua bete beharko dute. Honela xedatzen du artikulua horrek:

«Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua Espainiari Suspertze eta Eraldatze Mekanismoko diru-funtsen onuradun gisa Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera, BEEP programako neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok dagozkion arauekin bat datozen neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman beharko du iruzurraren aurkako zer neurri aplikatu behar dituen eta zer neurri aplikatu behar zaizkion adierazteko».

Era berean, irailaren 10eko ICT/949/2021 Aginduak, zeinak arautzen baititu merkatuei, merkataritza-hiriguneei, sedentarioa ez den merkataritzari eta merkaturatze kanal laburrei laguntzeko laguntza-lerroaren oinarriak, 29.2.f) artikuluan, eta 2021. urterako deialdia egiten duenean, BEEPn esparruan, hau adierazten du: erakunde onuradunek, 5.f) artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzeaz gain, bermatu beharko dute gastuen erregularitasuna ere, eta neurriak hartu beharko dituzte ustelkeria aurreikusi, atzeman, jakinarazi eta zuzentzeko, baita interes-gatazka eta finantzaketa bikoitza prebenitzeko ere.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta BEEP gauzatzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartuta, arintze eta kontrol-neurriak hartu eta jaso ziren. Azaldutakoaren jarraipen gisa, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu da, BEEPn kudeaketa-sistema eratzen duena.

Agindu horretako aurreikuspenen artean, 6. artikulua ezartzen eta garatzen duen betebeharra nabarmentzen da, zeinaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. Artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetze aldera (BEM mekanismoa ezartzen du erregelamendu horrek), entitate orok, BEMeko funtsen onuradun den heinean, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, honako hau eduki beharko du: iruzurraren aurkako neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman beharko dio, dagokion jardun-eremuan, bermatzeko eta deklaratzeko funtsak erabili direla aplikatu beharreko arauen arabera, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Beraz, dokumentu honen hasierako helburua da zenbait errefortzu-neurri adieraztea eta hedatzea, bermatuko dutenak, Arrasateko Udalaren eremuan, jasotako BEEP funtsak erabiltzen direla aplikatzekoak diren arauen arabera, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez. Hala ere, ezin da alde batera utzi Planean adierazitako printzipioak eta dokumentuan eta eranskinetan jasotako neurriak arian-arian txertatu behar direla Udalak hasitako proiektuen eguneroko kudeaketan. Beraz, kudeaketa-eredu bat da, eta oinarri ditu, alde batetik, arrazionaltasun-, antolaketa-, eraginkortasun-, efizientzia- eta kontu-emate-printzipioak, eta, bestetik, iruzurraren,

ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako borroka eraginkorra ahalbidetuko duten neurrien antolaketa.

2. PLANAREN HELBURUAK ETA APLIKAZIO-EREMUA

2.1. HELBURUAK ETA APLIKAZIO EREMUA

Iruzurraren kontrako plan honen helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako arloan aplikatu eta beteko diren printzipio eta arauak ezartzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismotik (BEEM) datozen funtsen inguruko interes-gatazkak saihesteko.

Horretarako, edozein motatako iruzurrezko jardueratan disuasio-eragina izango duen kultura sustatuko da, jarduera horiei aurrea hartu eta antzematea ahalbidetuz, eta iruzurra eta horri lotutako delituak ikertzen lagunduko duten prozedurak garatuz, kasu horiek behar bezala eta une egokian aztertuko direla bermatzeko.

Planaren esparruan, Udalean edo Udalarentzat zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek, edozein forma edo lotura juridiko edo instituzional dutela ere, zintzotasunez eta gardentasunez jokatu beharko dute beren eginkizun eta egitekoetan, ustelkeriatzat edo interes-gatazkatzat har daitezkeen jokabideak saihestuz eta jazarritz, adierazpen guztietan, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Plan hau nahitaez bete behar dute Udalean zein haren menpeko entitateetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenek, direla karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak edo konfiantzazko karguak. Era berean, Udaleko gobernu-organoetako kideei ere aplikatuko zaie (aurrerantzean, Hartzaileei).

Era berean, eta Udalak bere eginkizunak garatu eta gauzatzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen esku-hartzea eta parte-hartzea behar dela oinarri hartuta, erakunde, organismo eta instituzio publiko edo pribatu, hornitzaile, kontratista, azpikontratatistak edo laguntzaileek (aurrerantzean, Hirugarrenak), plan honetan jasotakoa bete beharko dute, Udalarekin edozein motatako harremanak hasi eta mantendu ahal izateko.

Plana tresna malgua da; aldatu ahal izango da iruzurraren aurkako neurrien arloko arau, jarraibide edo gida berririk egonez gero; hau da, Planaren asmoa da etengabe berrikustea iruzurraren aurkako borrokan planteatutako jarduera bakoitza, hobetzeko helburuarekin.

Hori horrela, Planaren indarraldia mugagabea da, baina urtean behin, behintzat, berrikusi egingo da, eta, era berean, iruzur-kasurik detektatuz gero, edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsurik gertatuz gero, berrikuspenera bultzatuko da.

2.2. DEFINIZIOAK

Iruzurraren kontrako Plan honi azpiko definizio hauek aplikatuko zaizkio, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 Europar Batasuneko zuzentarauan (PIF zuzentaraua), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, 2018 uztailearen 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikagarri zaizkion finantza-arauei buruzkoan (EBko Finantza Erregelamenduan) jasota dauden definizioak:

IRUZURRA

- a) Kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, edozein ekintza edo ez-egite:
- Aitorpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osaturik gabeak erabili edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo arrazoirik gabe atxikitzea dakarrena, edo haren izenean aurkeztea.
 - Ondorio berbera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea
 - Funts edo aktibo horiek modu desegokian erabiltzea, ez hasieran eman ziren helburuetarako, beste helburu batzuetarako baizik.
- b) Kontratu publikoekin zerikusia duten gastuen arloan, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kanpoko irabazi-asmoarekin egiten direnean behintzat, honako hauei buruzko edozein ekintza edo omisio:
- Aitorpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osaturik gabeak erabili edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo arrazoirik gabe atxikitzea dakarrena, edo haren izenean aurkeztea.
 - Ondorio berbera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea
 - Funts edo aktibo horiek modu desegokian erabiltzea – ez hasieran eman ziren helburuetarako, beste helburu batzuetarako baizik – Batasunaren finantza-interesak kaltetuz.
- c) BEZaren baliabide propioetatik ez datozen diru-sarrereri dagozkienek, honako hauei buruzko edozein ekintza edo omisio:
- Aitorpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osaturik gabeak erabili edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo arrazoirik gabe atxikitzea dakarrena, edo haren izenean aurkeztea.
 - Ondorio berbera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea
 - Legez eskuratutako onura baten erabilera desegokia, ondorio berdinarekin
- d) BEZaren berezko baliabideetatik datozen diru-sarrereren arloan, mugaz gaindiko edozein ekintza edo omisio, honako hauei dagokienez:
- BEZaren inguruan, aitorpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontuetako baliabideak gutxitzea dakarrenean.
 - BEZaren inguruan, ondorio berbera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea.
 - BEZaren aitorpen zuzenak aurkeztea, iruzur eginez ordainketa ez betetzea disimulatzeko edo BEZa itzultzeko eskubidea legez kontra sortzeko.

USTELKERIA AKTIBOA

Zuzenean edo bitartekari baten bidez funtzionario bati, berarentzat edo hirugarren batentzat, edozein motatako abantaila agintzen, eskaintzen edo ematen dion pertsona orenen ekintza,

funtzionario horrek bere zereginarekin edo bere eginkizunekin bat etorritik jardun dezan edo jardun ez dezan, halako moldez non Batasunaren finantza-interesak kaltetu ditzakeen.

USTELKERIA PASIBOA

Funtzionario baten ekintza, baldin eta, zuzenean edo bitartekari baten bidez, berarentzat edo hirugarren batentzat edozein motatako abantailak eskatu edo jasotzen baditu, edo abantaila baten promesa onartzen badu, bere zereginarekin edo bere eginkizunekin bat etorritik jardun dezan edo jardun ez dezan, halako moldez non Batasunaren finantza-interesak kaltetu ditzakeen.

INTERES-GATAZKA

Interes-gatazka sortuko da, arriskuan jartzen bada eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzea arrazoi familiarak, afektiboak, kidesun politiko edo nazionalekoak interes ekonomikoak bezalako arrazoiengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein motiborengatik.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoerari erreparatuta, honako hauek bereiz daitezke:

- Itxurazko interes-gatazka: Enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak bere funtzioen edo betebeharren egikaritze objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- Interes-gatazka potentziala: Enplegatu publiko edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituztenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.
- Benetako interes-gatazka edo interes-gatazka erreala: Langile publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta enplegatu publikoak interes pertsonalak ditu betebeharrak eta erantzukizun ofizialak modu bidegabean betetzeko. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharrak eta funtsen interes pribatuen artean, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.
- Interes-gatazkan inplikatuak egon daitezkeen eragileak:
 - o Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.
 - o Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, horien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, beren interesen alde jardun eta EBren finantza-interesen aurka jardun dezaketenak, interes-gatazka baten esparruan.

IKUR GORRIAK

Alerta-adierazle bat edo ikur gorri bat ezohiko zerbait gertatu dela eta ohiko funtzionamendu normalarekin bat ez datorrela adierazten duen adierazle bat da, eta zerbait aztertu behar dela adierazten duten alarma-seinale, pista edo balizko iruzurraren edo ustelkeriaren zantzu gisa eratzten da.

Erakunde bakoitzak alerta-adierazleak garatu behar ditu iruzur-mekanismoarik ohikoenetarako eta errepikatzaileenetarako, horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedurak definitu behar ditu, bere prozedura-eskuliburuetan sartu behar ditu eta antzemateko moduan dauden langileei jakinarazi behar dizkie.

Oso garrantzitsua da ikur gorri baten aurrean erreakzionatzea: langileak eta arduradunak erne egotera behartzen ditu, eta iruzur-arriskua dagoela baieztatzeko edo ukatzeko beharrezko neurriak hartzera.

Ikur gorriak ez dakar iruzurrik, baina jarduera-eremu batek arreta behar du iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

3. IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO TRESNAK ETA PROZESUAK

3.1. TESTUINGURUA

Planak iruzur-arrisku nagusiei heltzen die, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak kontuan hartuta: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena, eta ziurtatzen du inplikaturako alderdi guztiek, barnekoek (administratzaileek, kudeatzaileek eta kontrolatzaileek) zein kanpokoek (onuradunek eta gizarteak, oro har) ondo baino hobeto ulertzen dituztela beren erantzukizunak, betebeharrak eta, hala badagokio, eskubideak, iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatu baten oinarrituta.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak ezarrita nabarmen murriztuko da iruzur-arriskua, eta, gainera, disuasio-metodo garrantzitsua izango da.

3.2. PREBENTZIO-TRESNAK

Iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzionala

Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakunde guztiek Iruzurraren aurkako borrokarako Adierazpen Instituzional bat sinatuko dute, beren webgune instituzionalean argitaratuko dena, eta iruzurraren aurkako borrokan estandar etiko gorenak lortzeko adierazpen argi eta sendoa izango du.

Dokumentu honen I. eranskinean iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzionala erantsi da, 2022ko uztailaren 19an Arrasateko Udalaren Plenoak onartua.

Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna

Udalan iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, Iruzurraren Aurkako Batzordea eratu da. Batzorde hori dokumentu honetan jasotako xedapenak

betetzeaz, iruzurraren ebaluazioa egiteaz eta, hala badagokio, dagokien erakundeei jakinarazteaz arduratuko da, bai eta neurri zuzentzaileak proposatzeaz ere.

Arrasateko Udalaren kasuan, xede hori betetzeko, 2022ko uztailaren 19an, Udal Plenoaren akordioz, Iruzuraren Aurkako Batzorde bat eratu zen, ondorengo kideez osatuta:

1. Udal idazkaria
2. Udal kontu-hartzailea
3. Udal diruzaina
4. Kontratazio teknikaria
5. Obra, zerbitzu eta auzo arlo-burua

Batzorde horrek irregulartasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, eta entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu.

Iruzuraren Aurkako Batzordeak independentziaz eta inpartzialtasunez jokatu beharko du, eta ahalik eta ardura eta gaitasun profesional handienarekin gauzatu beharko du bere lana. Horretarako, batzordeak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio Udaleko sail eta prozesu bakoitzari, errekeritutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

Batzordea, gutxienez, sei hileroko bilduko da, nahiz eta, edozein unetan, bildu izan ahalko den kideetako batek deialdia egiteko ardura duen pertsonari (idazkariari) hala eskatzen badio. Bilera bakoitzaren akta egingo da.

Hori horrela, ondorengoak izango dira bere eginkizunak:

- Zuzentzea eta gainbegiratzea Politika honen garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betetzea.
- Sustatzea iruzurreko ekintza eta jokabideen aurrean “zero tolerantzia” printzipioan oinarritutako prebentzio-kultura.
- Abian jartzea arriskuen mapa bat, bai zaintza eta kontrolerako planak eta prozedurak ere.
- Proposatzea Udalean iruzur, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko arau eta barne-kontrol egokiak onartzea.
- Antzemandako arriskuen aldizkako ebaluazioa eta arrisku bakoitzari aplikatu beharreko kontrolak egitea.
- Politika hau modu loteslean interpretatzea, eta ebatzea haren edukiari, aplikazioari edo betetzeari buruz sortzen zaizkion kontsultak edo zalantzak.
- Salaketan kanala kudeatzea, hari lotuta egindako jarduketaren guztien erregistroa eramanez dokumentuak kudeatzeko sistema baten bidez, sistemaren funtzionamendua azkar frogatu eta gerta daitezkeen akatsak detektatu ahal izateko.
- Hastea eta zuzentzea iruzurrezko jokabidea ekar dezakeen edozein gertakari buruz egiten diren barne-ikerketak, bai eta organo eskudunei dagozkien zehapenak ezartzea proposatzea ere. Ikerketarekin lotura duten unitateei egoki irizitako informazio guztia eskatzea, behar bezala azter dezaten.
- Alkateari hasitako espedienteetan lortutako ondorioen berri ematea.

- Urteko memoria bat egitea, Batzordeak bere eskumenen esparruan egindako jarduerak jasoko dituen, eta horren berri ematea osoko bilkurari.
- Alkateak eman diezaiokeen beste edozein eginkizun.
- Politika honetan egoki diren aldaketak proposatzea.
- Udaleko gainerako langileak kontzientziatzea eta prestatzea, Giza Baliabideetako Azpisailarekin eta Europako funtsak koordinatzeko unitate funtzionalarekin lankidetzan, prestakuntza-plangintzari dagokionez.

Batzorde honek hirugarrenen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duenean, eta ekimen-askatasuna izango du ikerketa bat hasi ahal izateko, aldez aurreko salaketarik edo nagusi baten agindurik behar izan gabe, betiere edozein arrazoiengatik komenigarritzat jotzen badu.

Horrez gain, isilpean gordeko ditu bere eztabaida eta erabakiak, eta, oro har, ez du jakinaraziko bere kargua betetzea eskura duen informazio, datu, txosten edo aurrekaririk, ez eta bere onurarako edo hirugarrenen onurarako erabili ere. Konfidentzialtasun-betebehar horrek bere horretan jarraituko du, baita kargua utzi badu ere.

Batzordea interes-gatazkan badago, horren berri eman beharko dio gobernu-organoari, eta hark izango du eskumena horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkak ebazteko.

Guztiz gain, edozein egoera prebenitzeko eta antzemateko barne-kontrolako sistema proposatuko du, planaren neurrien jarraipen-txostenak egingo ditu eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak proposatuko ditu eta behar duen aholkularitza edo txostenak eskatu ahal izango ditu. Iruzuraren aurkako neurrien ezarpena bermatzeko, sail edo zentro kudeatzaile guztiek zazpi lan eguneko epean eskatzen den informazio eta lankidetzaren emateko betebeharra dute.

Bestalde, kudeaketa-sistema informatikoetan dagoen informazioa kontsultatzea eta aholkularitza zein laguntza teknikoa ematea eskatu ahalko du.

Arriskuen eraginaren eta probabilitatearen hasierako ebaluazioa

Arrasateko Udalak egin beharreko iruzur-arriskuaren ebaluazioaren helburu nagusia da Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egin diezaieketen iruzur-arrisku jakin batzuek edo maizen gertatzen diren iruzur-egoeren probabilitatearen eta inpaktuaren autoebaluazioa erraztea, bai eta erakundeak gaur egun, bere eskumenen garapenean ezarrita dituen kontrolak aplikatu ondoren, oraindik iraun dezaketen arriskuak murrizten lagunduko duten kontrol aringarriak hartzea ere.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa autoebaluazio-prozesu baten bidez garatzen da.

Autoebaluazio-prozesua

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa irailaren 29ko HFP/1030/2021 aginduaren arabera egingo da, Batzordearen autoebaluazio-tresna erabiliz, Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020 (DG REGIO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 zenbakiko araudiaren 125.4 c) artikulua aplikatuz garatua, Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa

Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzari eta Europako Itsas eta Arrantza Funtzari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen, eta funtsetako bati buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen.

Tresna horren aplikazioarekin, alde batetik, jarraian zehazten diren kudeaketa-prozesuetan gerta daitezkeen arrisku espezifikoak identifikatu nahi dira, autoebaluazioaren arabera organismoak jada aplikatzen dituen gain beste kontrol batzuk ezarri beharko lirakeenak, iruzurrekoak izan daitezkeen jardueren inpaktu probabilitatea maila onargarrietara murrizteko, eta, bestetik, antzemandako iruzur arriskuak arintzeko hartu beharreko neurri eraginkor eta proportzionatuak hautatu nahi dira:

- Onuradunak hautatzea
- Finantzatutako operazioak gauzatzea eta egiaztatzea
- Kontratuak/dirulaguntzak esleitzea
- Ziurtapena eta ordainketa

Arriskuak identifikatzeko, lan kolektibo eta iraunkor bat egingo da (aurretiazko esperientzia, arriskuen inbentarioa), arriskuen deskribapena, haren izaera orokorra edo espezifikoa definituz, zein arlotan/prozesutan eragiten duen, norke parte har dezakeen eta arrisku mota: barne/kanpo kolusioa.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa funtsezko urrats metodologiko hauetan oinarrituko da:

1. Iruzur jakin bat gertatzeko arriskuaren zenbatespen kuantitatiboa, probabilitatearen eta eraginaren (arrisku gordina) balioespenean oinarrituta.
2. Arrisku gordina arintzeko gaur egun martxan dauden kontrolen eraginkortasunaren balorazioa.
3. Arrisku garbiaren balorazioa, abian jar daitezkeen kontrolen eraginkortasuna eta eragina kontuan hartu ondoren; hau da, egoera, ebaluazioaren unean den bezala (hondar-arriskua).
4. Ezarri asmo diren kontrol aringarrien arrisku garbian edo hondar-arriskuan izan dezaketen eraginaren balorazioa.
5. Arrisku objektiboaren zenbatespena, hau da, kontrol eraginkorrak abian jarri ondoren kudeaketa-agintaritzak onargarritzat jotzen duen arrisku-maila.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 c) artikulua arabera, iruzur-arriskuen ebaluazioa aldi behin egin eta berrikusi behar da, bi urtean behin edo urtean behin, aurkitutako iruzur-arriskuaren arabera eta, nolahi ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo kudeaketa-prozeduretan edo horiek gauzatzen dituzten langileetan aldaketa esanguratsuak daudenean.

Identifikatutako arrisku-maila oso txikia bada eta aurreko urtean iruzur-kasurik atzeman ez bada, autoebaluazioa bi urtean behin soilik berrikusiko da.

Agindu horrek berak, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzio-neurrien artean, kudeatutako neurri guztietarako arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea jasotzen du, eta horren ebidentzia uzten du, iruzurra jasateko arrisku handiena duten prozesuko alderdiak bilatzeko eta bereziki kontrolatzeko, honako oinarri honen gainean:

- a. Iruzurra gehien eragin dezaketen neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza askotakoak, kontrol konplexuak, etab.
- b. Interes-gatazka posibleak identifikatzea.
- c. Barne-kontrolko sistemaren aurretiazko lanen emaitzak (planaren 3.3 atala)
- d. Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontu Auzitegiaren auditorien emaitzak.

Dokumentu honen II. Eranskinean, arriskuaren eragina eta probabilitatea autoebaluatzeke eredu bat erantsi da, arriskua autoebaluatzeke prozesua egin aurreko urratsa izango litzatekeena.

Nolanahi ere, kudeatzaile guztientzako barne-kontrolko prozesuak ezartzeko, horri buruz agintari nazionalak eta europarrek emandako araudia eta gomendioak beteko dira, bai eta BEEPrentzat berariazkoak direnak ere.

Kode etikoa eta jokabide-etikoa (V. Eranskina)

Arrasateko Udalak bere kode etikoa onartu bitartean, erakundea Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroaren 22an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginera atxikituta dago, 2022ko uztailaren 19ko bilkuran Udal Plenoak hala erabaki baitzuen.

Edonola ere, Plan honen V. Eranskinean jasotzen dira hautetsien eta enplegatu publikoen jokabide etikoa eta kode etikoa; Kode hori, Plan honen aplikazio-eremu tenporalaren barruan aplikatuko da.

Prestakuntza eta sentsibilizazioa

Arrasateko Udalak iruzurrarekin eta ustelkeriarekin lotutako hainbat gairi buruzko ikastaroak eta prestakuntza-hitzaldiak antolatzeke konpromisoa hartzen du, langileak treba daitezen funts publikoen erabileraren portaera ez-etikoa, eta, ondorioz, balizko iruzurra, antzematen eta prebenitzen lagunduko duten ikastaldiekin.

Datuak egiaztatzea eta gurutzatzea

Datuak babesteari buruzko legeriaren mugen barruan, erakunde betearazleek tresna egokiak erabiltzea sustatuko dute, datuak lortzeko, biltegitratzeko eta aztertzeke prozesuak optimizatzeko, arriskuak ebaluatzeke, datuak sektoreke beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta arrisku handiko egoerak detektatzeko, baita funtsak eman aurretik ere.

Horretarako, Plan hau aplikatu behar zaien erakundeko agintariak eta langileak barne-tresnak erabiliko dituzte, hala nola, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma, eta datu-baseak, eta diru-laguntzen datu baseetan, datuak aztertzeke tresnak (“data mining”) edo arriskuen puntuazioak, hala nola ARACHNE izenekoa, Europako Batzordeak eskainia eta egina, Funts gatazkatsuetan iruzur-arriskua identifikatu eta ebaluatzeke, hala nola kontratazio publikoan alerta-adierazleen bidez, baita iruzurraren aurkako neurriak diseinatzeke.

Barne-kontrolko sistema

Arrasateko Udalak barne kontrolerako sistema bat du, arriskuen azterketan oinarrituta.

Barne-kontrola Udal Kontu-hartzaileari dagokio, eta honako araudian oinarritzen da:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua
- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena
- Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 31n. 15eko 86/2015 Foru Dekretua
- Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua
- Arrasateko Udalaren aurrekontua betearazteko araua eta aplikatzeko den gainontzeko araudia

Kontu-hartzailearen eginkizuna da eskubideak edo gastuak onartzea dakarten egintzak kontrolatzea, edozein dela jasotzen duten kalifikazioa, bai eta horien ondoriozko sarrerak eta ordainketak ere, eta, oro har, funts publikoen inbertsioa edo aplikazioa, oinarrizko baldintzen fiskalizazio mugatuko erregimenean, gastuen kasuan; diru-sarreraren kasuan, aurrekontu exekuzio arauan ezartzen den bezala.

Ondoren, fiskalizazio hori eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gaineko fiskalizazio osoa egiten da, urtero, laginketa- edo auditoretza-teknikak aplikatuz, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenekin bat datozela egiaztatzeko eta kudeaketan legezketasuna zenbateraino betetzen den zehazteko.

Finantza-kontrola, etengabeko kontrolaren eta ikuskaritza publikoaren bidez gauzatzen dena, zerbitzuen funtzionamendua egiaztatzeko alderdi ekonomiko-finantzariari dagokionez, kontu-hartzaileak, zuzenean edo lan horiek egiteko gaitutako enpresa adituen bitartez gauzatuko da, ikuskaritza-teknikez baliatuz. Finantza-kontrolaren helburua izango da finantza-informazioaren aurkezpen egokiaren, aplikatu beharreko arauen eta zuzentarauen betearazpenaren eta aurreikusitako helburuen efikazia- eta efizientzia-mailaren berri ematea.

Nolanahi ere, aplikatzeko izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Estatuko ordenamendu juridikora; aplikatzeko da, era berean, 36/2020 Errege lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, administrazio publikoa modernizatzeke eta berreskurapen-, eraldaketa- eta erresilientzia-plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen ere.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa eta hori garatzen duen erregelamendua aplikatuko dira.

Udalak, BEEP plana gauzatzen parte hartzen duen erakundea den aldetik, prozedurak aplikatuko ditu, Estatuaren Laguntzei eta Lehia Askeari buruzko araudia uneoro erabat errespetatzen dela ziurtatzeko, bai eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko ere.

Horretarako, autoebaluazio bat egingo du, Estatuko laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruz.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren (EBFI) 107. Artikuluaren arabera, Estatu-laguntzat hartzen da estatuak edo estatu-funtsen bidez edozein modutan emandako edozein laguntza, baldin eta enpresa edo ekoizpen jakin batzuei mesede eginez lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko mehatxua egiten badute.

Bestalde, EBFIn 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dute operadore ekonomiko batek lehia askea faltsutzen edo murrizten duen edozein jokabide aldean izan edo aldebakarrekoa izatea.

Udalak printzipio horiek errespetatu beharko ditu uneoro, EBFIn, Lehia Defendatzeko Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

3.3. DETEKZIO-TRESNAK

Komunikazio-sistema

Iruzuraren aurkako neurrien plan hau aplikatzeko Arrasateko Udalak barneko zein kanpoko kanaletan oinarritutako komunikazio-sistema bat ezarriko du, eta sistema horrek jakinarazpen-mekanismo egokiak eta argiak izango ditu iruzur-susmoen berri emateko.

Ildo horretan, irregulartasunak salatzeko prozedura bat prestatu da, Arrasateko Udalaren web orriaren bitartez: batetik, Iruzuraren kontrako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalerako (SNCA) esteka sartu da; zerbitzu hori Europar Batasunaren finantza-interesak iruzurretik babesteko ekintzak koordinatzeaz arduratzen da, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoarekin (OLAFekin) lankidetzan, eta, bestetik, Udalak bere sistema propio bat jaso du, *ad hoc* ezarritako komunikazio-sistema bat. Azken sistema hori Arrasateko Udalaren salaketa postontzi propioa da, eta, horren bitartez, edozein pertsonak jakinarazi ahal izango ditu iruzur susmoak eta horren inguruan antzemandako irregulartasunak, eta hauxe jakinaraziko zaio:

1. Salaketa kontuan hartuko da, eta egindako gestioen emaitza jakinaraziko zaio.
2. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa errespetatuko dira.
3. Ez dute errepresaliarik jasango, eta funtzionario publikoak izanez gero, ez dute zehazpenik jasango.

Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)

“Bandera gorriak” izeneko erreferentziazko adierazle-multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek iruzurrezko jardura bat gertatzen ari dela ohartarazteko balio dute, berehala erreakzionatzea eskatzen dutenak, ekintzaren bat egitea beharrezkoa den egiaztatzeko.

Europako Batzordeko katalogo hori egiteko informazioa eman die Estatu kideei, eta iruzur-arriskuak antzemateko egoeran dauden langile guztiei jakinarazi behar zaie informazio hori. Bereziki, onuradunen jarduerak gainbegiratzea eginkizun duten pertsona guztiek (adibidez,

dokumentu-egiaztapenak eta tokian bertan egiaztapenak egiten dituztenek edo bestelako jarraipen-bisitak egiten dituztenek) adierazle horiek ezagutu behar dituzte.

BEEPre jarduerak gauzatzeko izapidetzen diren prozeduretan, kudeaketa-kontrolaren funtzioa betez, dokumentu honetan definitutako balizko bandera gorrien berrikuspena dokumentatuta geratu beharko da, dagokion egiaztapen-zerrenda betez. Horretarako, kudeaketa-organismoek BEEPk finantzatutako jarduketa eta azpiproiektu bakoitzerako egiaztapen zerrenda bete beharko dute

Dokumentu honen IV. Eranskinean, “bandera gorriak” izeneko adierazleen zerrenda erantsi da, bai eta horiek egiaztatzeke zerrenda ere, iruzurrik dagoen zehazteko.

Faltsututako dokumentuak detektatzea

Faltsututako dokumentuak iruzur-kasu partikularrik dira, eta arreta berezia eskainiko zaie.

Horiek detektatzeko eta zuzentzeko, esku hartzen duten administrazioek barne-kontrolak egingo dituzte, honako hauek kontuan hartuta: IV. Eranskineko adierazleen katalogoa (bandera gorriak), merkataritza-erregistroen datu-baseak, estatuko eta EBeko organismoak, langileen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta) eta datuak aztertzeke tresnak (“data mining”) edo arriskuen puntuazioa (ARACHNE).

Faltsututako dokumentazioaren kasuan jakinarazi behar izango dira Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA, gazteleraz) eta, hala badagokio, Iruzuraren Aurka Borrokatzeke Europako bulegoari (OLAF, gazteleraz). Ekintzak zigorgarriak badira, agintari eskudunei egoera salatuko diete, kasuan kasuko Zerbitzu Juridikoen txosten bat eginez, kasua instantzia judizialen esku uzteke erabakia babesteko.

3.4. ZUZENKETA- ETA JAZARPEN-PROZESUAK

Ustezko iruzur-kasu bat detektatu eta aurreko puntuko komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen betekizunekin eta barne-baldintzekin lerrokatuta), kudeaketa organismoek balioetsiko dute ea beharreakoa den ikerketa bat abiaraztea eta ea bidezkoa den behar ez bezala jasotako zenbatekoak berreskuratzeke eta dagokion akzio penala gauzatzeko beharrezko ekintzak abiaraztea.

OHFP 1030/2021eko 6.6 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzur edo susmo oinarrituen bat hautematen denean, erakundearen kudeaketa-organismoek nahitaezko urrats hauek bete beharko dituzte:

- **Iruzuraren ebaluazioa eta sailkapena.** Erakundeak iruzurraren eragina ebaluatuko du, eta, besteak beste, neurrian esku hartzen duen edonork aurkeztutako ebaluazio-txostenetan oinarrituko da.
- **Jarduera berrikustea, geldiaraztea eta/edo etetea.** Iruzur posibleren bat detektatuz gero, edo horren susmo oinarrituna izanez gero, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta dagoen azpiproiektua edo jarduketa berehala etengo da.

Horregatik, iruzurrezko jardueraren eraginpean egon diren azpiproiektuen edo ekintza-lerro guztiak berrikusi beharko dira, bai eta esku-hartzaileek horiekin lotuta aurkeztu ahal izan duten dokumentazio guztia ere. Nolanahi ere, iruzurraren eraginpean dauden eta

BEMko funtsekin finantzatu diren edo finantzatzeko dauden azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak baztertu beharko dira.

- **Komunikazio-sistema.** Udalak konpromisoa hartzen du ahalik eta eperik laburrenean jakinarazteko iruzurra antzeman badu, edo susmo sendoa badu, bai erakunde interesdunei, bai tartean dauden erakundeei. Erakunde interesatuak Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), Iruzuraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF), fiskaltza eta auzitegi eskudunak dira.

Zuzenketarako hartu beharreko neurriei dagokienez, komunikazio-sistemak honako hauek biltzen ditu:

- o Gertatu diren gertaerak eta hartutako neurriak jakinaraztea jarduketak gauzatzea agindu dion erakundeari. Arrasateko Udalak (erakunde betearazle gisa), erakunde erabakitzaileari jakinaraziko dio kontua, eta hark Agintaritza Arduradunari jakinaraziko dio. Azken horrek egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari jakinarazteko.
 - o Gertaerak salatzea, hala badagokio, Agintaritza eskidunei, SNCARI, balora ditzaten eta OLAFi jakinaraz diezazkioten.
 - o Erantzukizunak argitzeko edo diziplinazko espediente bat irekitzeko informazio erreserbatua hastea.
 - o Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea, kasuan kasuko kasuetan, Zerbitzu Juridikoek txosten juridiko bat eginez, kasua instantzia judizialen esku uzteko erabakia babesteko.
- **Espedienteak berrikustea.** Agintaritza eskudunek ikerketa amaitu ondoren edo horren jarraipena egiteko agintari egokiei transferitu ondoren, Arrasateko Udalak zehatz- mehatz berrikusiko du iruzur potentzialarekin edo frogatuarekin lotutako prozesu edo prozedura oro, eragiketa horretan sartutako espediente guztiak eta/edo antzeko izaera ekonomiko dutenak, bai eta barne-kontrolako sistemak ere. Gainera, iruzurraren aurkako neurriekin lotutako autoebaluazio-testaren emaitzaren txostenak berrikusiko dira (II. Eranskina).

Berrikuspen horrek objektiboa eta autokritikoa izan behar du, eta lankidetzan jardun behar du ikerketaz arduratzen diren agintaritzekin eta legea betez, bai eta agintaritza judizialekin ere.

Berrikuspenaren ondorioz, erakunde horiek, hautemandako puntu ahulei eta ikasitakoei buruzko ondorioak azalduko dituzte, mekanismo egokiak, arduratsuak eta epe zorrotzak ezartzeko ekintza argiekin.

- **Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), baterako finantzaketa kentzea eta akzio penala.** Arrasateko Udalak agintaritza eskudunekin batera, onuradunek bidegabe jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eskatuko du, bai eta atzemandako intzidentzia identifikatzen duten espediente guztietatik Batasunaren baterako finantzaketa kentzeko ere.

Horretarako, iruzurrez erabili diren EBko funtsen berreskurapenaren jarraipenean prozesu zorrotzak formalizatuko ditu. Prozesu horiek argiak izan behar dute prozesu zibila edo penala jarraituko den kasuetan ere.

Bestalde, iruzurgileentzako disuasio-elementu gisa, zehapen jarduketak ikusaraziko dira eta horien aplikazioa zehazteko mezua indartuko da.

4. INTERES-GATAZKAK SAIHESTEKO PROZESUAK ETA TRESNAK

4.1. TESTUINGURUA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren 61. Artikuluak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak (EBren Finantza Araudia), ezartzen du interes-gatazka (IG) dagoela “finantza-eragileek eta aurrekontua egikaritzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, zuzenean, zeharka eta modu partekatuan, bai eta kudeaketan ere, prestaketa-ekintzak barne, familiako, afektibitateko, kideatasun politiko edo nazionalako, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik beren eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzeko konprometituta daudenean”.

Araudi horrek, OHFP 1030/2021 III.C eranskinean aipatzen den bezala, honako hau ezartzen du:

- EBko Erakunde guztietako administrazio- eta eragiketa-partida guztiei eta kudeaketa-metodo guztiei aplikatu dakieke.
- Edozein interes pertsonal estaltzen du, zuzena edo zeharkakoa
- Interes-gatazka potentzialtzat jotzen den edozein egoeratan jardun behar da.
- Agintaritza nazionalak, edozein mailatakoek, balizko interes-gatazkek saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.
- Ondorio horietarako, interes-gatazkan zerikusia izan dezaketen eragileak hauek dira:
 - o Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.
 - o Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde egin badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka ere, interes-gatazka baten esparruan.

4.2. PREBENTZIO ETA DETEKZIO TRESNAK

Europako Batzordearen eta OLAFen jarraibideei men eginez, interes-gatazkek prebenitzeko eta detektatzeko honako tresna hauek aurreikusten dira:

Interes-gatazken modalitatei buruzko informazioa ematea inplikaturako alderdiei

Interes-gatazka potentzialean inplikaturik egon daitezkeen pertsonen interes-gatazka zer den, haren modalitateak, inplikazioak eta hori saihesteko modua ezagutzen dituztela bermatzea. Inplikaturik egon daitezkeen pertsonak hauek dira:

- Kontratazio-organismoetako kideak, kontratazio publikoko zerbitzuen hornitzaileetako langileak eta kontratazio publikoko prozedura gauzatzean zuzenean inplikaturik dauden beste zerbitzu-hornitzaile batzuetako langileak.
- Kontratazio-erabakiak hartzeko ardura duten organismoetako kideak, kontratazio publikoaren prozeduran nahitaez zuzenean inplikaturik egon ez arren, emaitza eragina izan dezaketenak.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

- e. Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea, edo pertsona horri azken bi urteetan edozein motatako eta edozein inguruabar edo tokitan zerbitzu profesionalak eman izana».

Bigarrena. Ez nago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezin egoeratan, eta, beraz, ez dago Sektore Publikoaren

Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-kausarik, lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoari lehenbailehen jakinarazteko interes-gatazkarik edo abstentzio-kausarik dagoen edo egon daitekeen.

Laugarrena. Konfidentziasunez tratatuko dituela prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Bosgarrena. Badakiela interes-gatazkarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpen faltsu batek aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratibo eta judizialak ekarriko dituela.

4. ATALA: Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (STEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez

Lehenengoa. Ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

- A. 2. zenbakiko d) letra: «Funtsen ikuskapena eta kontrola egiteko, honako datu-kategoria harmonizatu hauek biltzea, Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, bilaketak egitea ahalbidetzen duen formatu elektronikoa batean eta datu-base bakar batean:
- a. Funtsen azken hartzailearen izena;
 - b. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzaileraren denean, Europar Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorriz;
 - c. Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-data, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan definitutakoaren arabera (26);
 - d. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa

publikoaren guztizko zenbatekoarekin batera, eta Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa adierazita».

- B. 3. paragrafoa: «Artikulu honetako 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako datu pertsonalak Estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, 15. artikuluko 2. paragrafoan eta 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako akordioak aplikatzearekin lotutako funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozeduren eta aurrekontu-kudeaketaren onespenerari dagokion auditoretzaren ondorioetarako eta iraupenerako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikulua arabera, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatutako finantza-informazioaren eta kontu-ematearen esparruan, eta, bereziki, bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Bigarrena. Azaldutako esparru juridikoaren arabera, datuak lagatzeko eta tratatzeko aukera duela adierazten du, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuekin.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

IV. ERANSKINA: ADIERAZLE GORRIAK

Bandera gorriak balizko iruzur baten alarma-, aztarna- edo zantzu-seinaleak dira. Bandera gorri batek ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina bai jarduera-eremu jakin batek arreata askoz gehiago behar duela balizko iruzur bat baztertzeko edo baieztatzeko.

Bandera gorrien adibide gisa, jarraian gehien erabiltzen direnak zerrendatuko dira, iruzurrezkoak izan daitezkeen praktiken tipologiaren arabera sailkatuta.

KONTRATAZIOA

Arriskua: Prozedura manipulatzeko lehia mugatzeko

Bandera gorriak

- a) Preskripzio teknikoaren edota administratiboaren klausulen agiriak lizitatzailerik baten alde idatzi dira.

Egoera hau gerta daiteke kontratuaren xedean, esaterako, marka komertzial zehatzak aipatzen badira eta marka alternatiborik sartzen ez bada; lizitatzailerik kopuru oso txikia lizitatu ahal izateko moduan deskribatzen bada; edo partaidetza hainbat faktorearen arabera mugatzen bada, hala nola enplegatu-kopuru, fakturazio-bolumen edo egoera finantzarioen arabera, ezinbestekoa izan gabe, inolaz ere, kontratua behar bezala gauzatzeko. Egintza honek lehia mugatu eta prozedura lehiakorra izatea eragozten du.

- b) Baldintza-agiriekin aurretik egindako antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztatzaileagoak dituzte.

Egoera hori gertatzen da aurretik egindako antzeko prozeduren izaera duen prozedura batean baldintzak gogortzen direnean, lehia mugatuz.

Adibidea: finantza-betekizunak handitzea, eskatutako fakturazio-bolumen jakin bat ezartzea, langile-tartea murriztea, etab., antzeko ezaugarriak izan dituzten prozeduretan ezarritakoarekiko.

- c) Eskaintza bakarra edo ez-ohiko proposamen-kopuru txikia aurkeztea, kontratazio-prozedura motaren arabera lizitazioa egiteko aukera izanik.

Hau gertatzen da kontratazio-prozedurak - sektore publikoaren araudiaren arabera - eskatzen duenean kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duten gutxieneko enpresa batzuei eskaintzak eskatzea, eta hori betetzen ez denean.

Adibidez, prozedura negoziatuan, gutxienez, kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duten hiru enpresari eskatu beharko zaizkie eskaintzak, ahal den guztietan.

- d) Kontratua zatitu egiten da adjudikaziodun bera duten bi prozedura edo gehiagotan, guztizko zenbatekoaren arabera bidezkoa izango zatekeen prozedura erabiltzea saihestuz, izan ere, prozedura horrek lehia- eta publizitate-berme handiagoak eskatzen baititu.

Kontratua bi kontratu txikitan zatitzen denean antzeko xedearekin adjudikaziodun berari, edo kontratua zatitzen denean xede berari lotutako hainbat horniduratan.

Kontratu sekuentzialak egiten dira adjudikaziodun berarekin, guztizko zenbatekoaren arabera bidezkoa izango zen prozedura erabiltzea saihestuz, izan ere, prozedura horrek lehia-eta publizitate-berme handiagoak eskatzen baititu.

Erosketa sekuentzialak egiten dira adjudikazio zuzenen bidez, denbora-epe laburretan.

- e) Kontratazio-prozedura esleitu gabe uzten da eta berriro deitu, nahiz eta pleguetan agertzen diren irizpideen arabera onargarriak diren eskaintzak jaso.

Prozedura bat esleitzeke geratzen da, nahiz eta prozeduran onartzeko moduko irizpideak betetzen dituzten eskaintzak egon, eta berriz ere deialdia egiten da baldintzak murriztuz, lizitatzailer jakin bati mesede egiteko.

- f) Kontratazio-prozedurari buruzko dokumentazioan eta informazio- eta publizitate-neurririk ez gotea edota eskaintzak jasotzeko epe nahikorik ez egotea.

Hau gertatzen da prozedurak ez dituenan betetzen aplikatzekoa den araudian deialdia iragartzeko eskatzen diren gutxieneko informazio- eta publizitate-baldintzak, zeinen helburua baita gardentasuna eta informaziorako sarbide publikoa ziurtatzea. Alde horretatik, gardentasun edo publizitate falta gertatzen da, baldintza-agirietan proposamenak aurkezteko epeak zehazten ez direnean, edo lehia mugatzea ekar dezaketen epe laburregiak ezartzen direnean.

Esaterako, pleguek ez dute ezartzen zehatz-mehatz zer agiri aurkeztu behar dituen lizitatzailerak bere proposamenean prozeduran onartua izan dadin.

- g) Beste eskaintzaile batzuen erreklamazioak

Idatzizko erreklamazioak eta kexak egiten dira kontratazio-prozeduran lehia mugatzeari buruz.

Arriskua: Jokabide kolusorioak eskaintzetan

Bandera gorriak

- a) Lizitatzaileraren arteko balizko akordioak elkarri lotutako edota erlazionatutako enprekin edo "hornitzaile mamuak" sartuz.

Jokabide kolusorio horiek gertatzen dira noiz eta lizitatzailerak, kontratu baten adjudikazioa lortzeko, kontratazio-prozedura manipulatzeko dutenean enpresa-lotura duten edo ez duten beste eskaintzaile batzuekin akordio kolusorioak eginez edo lizitatzailer faltsuak asmatuz.

Adibidea: enpresa-lotura duten entitate desberdinek eskaintza desberdinak aurkeztea, edo behar besteko kalitatea ez duten eskaintza mamuak aurkeztea, zalantza dagoenean haien helburua kontratua lortzea ote den.

- b) Lizitatzaileraren arteko balizko akordioak kontratazio-prozeduran eskaintzako prezioetan.

Lizitatuzaileak akordioetara iristen dira prezio baten azpitik ez eskaintzeko, ezohiko eskaintzen edo antzekoen patroiekin: eskaintzen beherapenen ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea oso hurbil dago baldintza-agirietan ezarritako prezio-atalasetik, prezioak oso antzekoak dira, eta abar.

- c) Lizitatuzaileen arteko balizko akordioak merkatua banatzeko.

Lizitatuzaileek merkatua banatzen dute lehia murriztuz, adibidez, eskualdearen arabera, lan motaren arabera, obra motaren arabera...

- d) Adjudikaziodunak kontratazio-prozeduran parte hartu duten beste lizitatuzaile batzuk azpikontratatzeko dituzte.

Adjudikaziodunak adjudikaziodun suertatu ez den lizitatuzaile bat azpikontratatzeko du eta hark egikaritzen du kontratuaren zati nagusia, azpikontratazio-mugei iskin eginez; gainera, kontuan hartu behar da lizitatuzaile horrek ez zuela alde aurretik eskatutako kaudimen tekniko eta/edo administratiboa betetzen.

Arriskua: Interes-gatazka

Bandera gorriak

- a) Langile baten ezohiko jokabidea, tematzen baita prozeduraren ardurapean egon gabe lizitazio-prozedurari buruzko informazioa lortzen.

Lizitazio-prozeduraz arduratzen diren taldeetako kide ez den enplegatu baten interes handia duenean informazioa lortzeko, informazio hori oso garrantzitsua izanik, lehiaketaren bilakaera alda dezakeelako edo kontratista jakin bati mesede egin diezaiokeelako. Gerta daiteke, baita ere, lotura izatea balizko kontratista baten hornitzaileekin.

- b) Kontratazio-organoko langile bat, baldin eta erakunde esleitzazilean lanpostuan justu hasi aurretik lan egin badu lehiaketan parte hartzen duen enpresa batentzat.

Kontratazio-organoko langile batek lan egin duenean kontratazio-prozedura batera aurkeztu daitekeen enpresa batentzat, justu lehenxeago, interes-gatazkak edo manipulazioak sor daitezke kontratista irabazle uzan daitekeen enpresa horren aldeko edo kontrako prozeduraren barruan.

- c) Familia-lotura kontratazio-enplegatu baten eta enpresa lizitatuzaileen erabaki- edo eragin-ahalmena duen pertsona baten artean.

Lotura horrek baloratu beharreko kontratuaren adjudikazioaren alde jokatzeko du.

- d) Adjudikazioak behin eta berriz lizitatuzaile beraren alde.

Lizitatuzaileak erakunde kontratatuzailearen aldetik justifikaziorik gabe jasotzen duen favoritismoari esker lortzen ditu kontratuak, baldintza-agirietan ezarritako adjudikazio-irizpideetan oinarritu gabe.

- e) Prezio altua duten eskaintzak edota kalitate eskaseko lana etengabe onartzea.

Kontratuak adjudikatzen direnean eskaintza ekonomiko altuak aurkezten dituzten lizitatzaillei edota baldintza-agirietan eskatutako kalitatearekin bat ez datozen kontraprestazioak dituztenei; edo eskaintza irabazlea altuegia denean gainerako lizitatzailleekin alderatuta. Adjudikazio horiek erakunde kontratatzailearen kideren baten interes-gatazka sor dezakete, hala nola alde zuzenetik aurretik adjudikaziodun izango dela dakien eta kontratazio-prozeduran ezarritako mugaren barruan prezio altua eskaintzen duen lizitatzaillea.

- f) Kontratazio-organoko kideek ez dituzte betetzen organismoaren etika-kodean ezarritako prozedurak.

Organoak etika-kode bat du, zeinaren prozedurak ez dituzte betetzen kontratazio-organoko kideek (interes-gatazka balizkoak jakinaraztea, etab.)

- g) Kontratazio-organoko kide bat bidegabeko kontraprestazioak jasotzen ari den zantzuak kontratazio-prozedurarekin lotutako mesedeen truke.

Denbora laburrean eta ageriko arrazoi justifikaturik gabe, kontratazioaz arduratzen den organoko kide baten aberastasunaren edo bizi-mailaren bat-bateko igoera duenean, adjudikaziodun jakin batzuek aldeko egintzekin lotua.

- e) Kontratazioaren arduraduna den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.

Sozializazioa edo harreman estua antzematen da kontratazio-langile baten eta kontratazio-prozeduren ondorioz enpresa-interesak izan ditzakeen zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten artean.

- f) Kontratazio-organoko kideen jokabide ezohikoa.

Espedientean ez da zehazten zergatik atzeratzen diren edo falta diren kontratuei buruzko dokumentuak, eta langileak ez ditu kasu horiek behar bezala justifikatzen. Hori gerta daiteke langile horrek interes-gatazkaren bat izan dezakeelako.

Arriskua: Manipulazioa aurkeztutako eskaintzen balorazio teknikoan edota ekonomikoan

Bandera gorriak

- a) Adjudikazio-irizpideak ez daude behar bezala zehaztuta edo ez daude jasota baldintza-agirietan.

Baldintza-agirietan lizitatzailleak hautatzeko eskaintza teknikoak edota ekonomikoak baloratzeko adjudikazio-irizpideak ez dira sartzen edo modu anbiguo edota irekian daude idatzita, eta horrek gardentasunik eta objetibotasunik eza eragiten du adjudikazioduna hautatzerako orduan.

- b) Ausarkeriazko baja onartzea lizitatzailleak behar bezala justifikatu gabe.

Adjudikaziodunak eskaintza nabarmen baxua aurkeztu du, gainerako lehiakideek aurkeztutakoekin alderatuta, eta kontratazio-organoak onartu egiten du, prestazioa eskatutako epean eta moduan emateko gaitasuna aldeztu aurretik justifikatu gabe. Lizitatuzaileek eskaintzako prezioen filtrazioetatik ere gerta daitezke, beren prezioa filtratutako eskaintza ekonomikoetara egokituz.

- c) Kontratazio-prozedura falta edo kontrolatzeko prozedura desegokiak.

Ez da kontrol-neurririk hartzen lizitazio-prozedura behar bezala jarraitzeko, eta, ondorioz akatsak egon daitezke hautagaien hautaketan. Adibidez, eskaintza ekonomikoak onartzen dira, baldintza teknikoak edota administratiboak betetzen ez dituzten lizitatuzaileak aldeztu aurretik baztertu gabe.

- d) Eskaintzak jaso ondoren izandako aldaketan zantzuak

Zantzuak azaltzen dira pentsarazten dutenak eskaintzak jaso ondoren aldaketak gertatu direla beraietan, bai prezioari dagokionez, bai eskaintzetan jasotako beste baldintza batzuei dagokienez.

- e) Eskaintzak baztertzea akats edo arrazoi zalantzarriengatik.

Eskaintza batzuk kanpoan geratzen dira nahiko justifikatuta ez dauden arrazoiengatik edo akatsengatik. Izan daitezke interesa dagoelako kontratista jakin bat hautatzeko.

- f) Lizitatuzaileen kexak.

Idatzizko erreklamazioak edo kexak egiten dira aurkeztutako eskaintzetan egon daitezkeen manipulazioen inguruan.

Arriskua: Irregularitasunak kontratua formalizatzean

Bandera gorriak

- a) Formalizatutako kontratuak aldatu egiten ditu adjudikazioaren baldintzak.

Kontratuak lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-dokumentuan formalizatu beharko dira, eta inola ere ezingo dira sartu formalizatzen den dokumentuan esleipenaren baldintzak aldatzen dituzten klausulak.

Aldaketa honelakoa izan daitezke: kontratu-klausula estandarrak edota kontratuaren esleipenean ezarritakoak gutxitzea, zehaztapen teknikoetan edo administrazio-baldintzen agirian funtsezko aldaketak egitea, kontratuko ondasunen eta zerbitzuen kalitate-, kantitate- edo espezifikazio-eskakizunen eta deialdiaren pleguetan alderdi berberei buruz ezarritako betekizunen arteko aldeak, eta abar.

- b) Adjudikazioduna eta kontratu-sinatzailea bat ez etortzea.

Adjudikazioduna eta kontratuaren sinatzailea ez dator bat sozietatearen izenari, nortasun juridikoari eta abarri dagokienez, eta egitate hori ez da behar bezala justifikatzen.

- c) Justifikaziorik gabeko atzerapenak kontratua sinatzeko kontratazio-organismoaren eta adjudikaziodunaren artean.

Larregizko atzerapenak adieraz dezakete zerbait ezohikoa edo susmagarria gertatzen ari dela.

- d) Kontraturik ez egotea.

Hori gertatzen da adjudikazio-kontraturik ez dagoenean edo kontratazio-espediterearen dokumentazio gutxi edo osatugabea dagoenean edo batera dokumentaziorik ez dagoenean, esaterako, prozeduran parte hartzen duten lizitatzailen dokumentazioan.

Arriskuak: Eginbeharrak ez betetzea edo prestazioan irregulartasunak egotea adjudikaziodunaren mesedetan

Bandera gorriak

- a) Prestazioa kontratuan ezarritakotik beherako baldintzetan.

Honako inguruabarren bat gertatzen denean: produktuak ez entregatzea edo ordeztzea, kalitate edo entrega-epeen aldetik egikaritze irregularra izatea, kualifikaziorik gabeko edo kontratuaren beharrianak baino kostu txikiagoko baliabideak esleitzea, besteak beste; hori guztia bidezkoa den justifikaziorik/motibaziorik gabe, adjudikaziodunari egotzi ezin zaizkion arrazoietatik luzapen-eskaera formalagatik, ezinbesteko arrazoietatik, eta abar.

- b) Kontratuan jasotako prestazioetan elkarrekotasunik eza.

Kontratuen oinarrizko ezaugarrietako bat sinalagmatikoak izatea da, hau da, baliokidetasuna egon behar da prestazioaren eta kontraprestazioaren artean. Adibidez, kontratu bat esleitzen da 40.000 euroren truke zenbateko hori justifikatzen ez duen helburu baterako (ikasgela batzuk pintatzeko lanak zeinen merkatu-kostu erreala 2.000 euro baino gutxiagokoa den); kontratistak entregatu beharreko zerbitzua edo produktua aldatzen da eta kopurua murriztu, baina erakunde adjudikatzaileak egin beharreko kontraprestazioan edo ordainketan aldaketarik egin gabe.

- c) Aldaketak prestazioan arrazoizko motiborik gabe.

Egoera hau hainbat modutara gerta daiteke. Adibidez, kontratista batekin kontratu bidez eskaera espezifiko batzuk ezarri ondoren, eskaera horiek handitu edo murriztu egiten ditu sarritan, ageriko arrazoizko motiborik gabe, edo lanorduak gehitzen dira materialak gehitu gabe, eta abar.

Arriskua: Dokumentuen faltsutasuna.

Bandera gorriak

- a) Eskaintzak hautatzeko prozesuan lizitatzailerek aurkeztutako dokumentazio faltsutua.

Lizitatzailerek dokumentazio eta informazio faltsua aurkeztu du kontratazioaren prozeduran sartu ahal izateko.

- b) Kostuen erreklamazioak edo fakturazioa manipulatzeko, zordunketa okerrak, faltsuak, gehiegizkoak edo bikoiztuak sartzeko.

Kontratatutako kostuak kobratzeko fakturak manipulatu direnean edo faktura faltsuak aurkezten direnean, hala nola, kostuen erreklamazio bikoiztuak, faktura faltsuak edo puztuak, egin ez diren edo kontratuaren arabera egin ez diren jardueren fakturazioa (eskulanen kostu okerrak, ordaindu gabeko aparteko kostuengatik karguak, ordutegi-tarifa desegokiak, existitzen ez diren langileentzat erreklamatuak gastuak, edo egikaritze-epetik kanpo egindako pertsonal-gastuak), pertsonalaren jardueren kalitatea gainestimatzeko, eta abar.

Arriskua: EGIFen laguntzako informazio- eta komunikazio-betebeharrak ez betetzea

Bandera gorriak

- a) EGIFen laguntzarako informazio- eta komunikazio-betebeharrak ez betetzea.

Adjudikazioak ez ditu betetzen Europako Gizarte Funtsaren informazio- eta publizitate-arloan dituen betebeharrak. Bai deialdia egiten duen erakundea bai adjudikazioduna behartuta daude laguntza edo eragiketa horiek EGIFen kontura finantzatuta daudela jakinaraztera eta zabaltzera, eta Europako Erkidegoko xedapenetan gaiari buruz ezarritakoa bete behar dute (RDCren 115.artikulua)

Arriskua: Auditoretza-aztarna galtzea

Bandera gorriak

- a) Kontratazio-espeditentean dagoen dokumentazioa ez da nahikoa auditoretza-aztarna bermatzeko.

Eragiketaren espeditentean ez da erregistratua geratzen auditoretza-aztarna bermatzen ahalbidetzen duen justifikazio-dokumentazioa. Adibide batzuk: gastuei, ordainketei, kontabilitateari, publizitateari eta egikaritzeari buruzko dokumentazioa edukitzea.

DIRU-LAGUNTZAK

Arriskua: Lehia mugatzea

Bandera gorriak

- a) Erakundeak ez du Oinarri arautzaileen/Deialdiaren behar besteko zabalkunderik egin.
- o Oinarri Arautzaileen/Deialdiaren argitalpena ez da egin oinarriak ahalik eta gehien hedatzea bermatzeko moduan, eta, beraz, ez zaie lagundu publizitate-eta gardentasun-printzipioei. Bandera hau gerta daiteke erakunde publikoen

kasuan oinarriak/deialdiak ez zabaltzeagatik Dirulaguntzei buruzko nahitazeko komunikabideetan (Aldizkari Ofizialak, webgunea, prentsa, etab.) edota beste komunikabide batzuetan.

- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 9.3 artikulua arabera, erakunde publikoek "Estatuko Aldizkari Ofizialean" edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar dituzte dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak
 - Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 17.8 artikulua arabera, dirulaguntza ematen duten administrazioek deialdiaren testua eta Datu-Baseak eskatzen duen informazioa jakinarazi behar dizkiote Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari (BDNS). Ondoren, BDNSk deialdiaren laburpenaren berri emango dio dagokion aldizkari ofizialari argitara dezan, eta doakoa izango da. Hori ez betetzea deialdia indargabetzeko arrazoia izango da.
- b) Erakundeak ez du argi zehaztu deialdian zer baldintza bete behar dituzten laguntzen/dirulaguntzen onuradunek/hartzaileek.

Laguntzen onuradunek/hartzaileen bete behar dituzten baldintzak ez dira argi geratzen edo anbiguoak dira interpretazio zuzen eta zehatza egiteko; horren ondorioz, onuradun izan daitezkeenek deialdira ez aurkeztea erabaki dezakete, edo onuradun jakin bat nahita hauta daiteke.

- c) Ez dira bete eskabidea aurkezteko Oinarri Arautzaileetan ezarritako epeak.

Bandera gorria gertatzen da erakundeak eskabideren bati uko egiten dionean, ustez eskaera hori epez kanpo entregatzeagatik zer eta modu eraginkorrean epe barruan aurkeztu denean, edo eskaera bat edo gehiago epez kanpo aurkeztu eta erakundeak onartu dituenean. Kasu horietan, Oinarri Arautzaileetan ezarritako epeak ez dira bete eskabideak aurkezteari dagokionez.

- d) Baremoen arabera emandako dirulaguntzen kasuan, ez dira argitaratzen dagozkien aldizkari ofizialetan.

Dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarriak argitaratzean ez dira sartzen eskabideak baloratzeko baremoak, eta, ondorioz, ez dago objektibotasunik eta gardentasunik eskabideen lehenetasunen hurrenkeran.

- e) Dirulaguntzen onuradunak/hartzaileak ez du betetzen lehia bermatzeko obligazioa, hornitzaileekin negoziatu behar izanez gero.

Bandera gorria gertatzen da laguntzaren edo dirulaguntzaren onuradunak/hartzaileak hornitzaileekin negoziatu edo haiek kontratatu behar dituenean eta bermatzen ez duenean hornitzaileak norgehiagoka-prozesu baten bidez aurkeztea. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikuluan horretarako ezarritako prozeduraren arabera, diruz lagundu beharreko zenbatekoak kontratu txikiaren zenbatekoa gaunditzen duenean, kontratazio publikoaren araudia jarraituz, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez. Kasu honetan, arriskua izan daiteke, baita ere, hornitzaileak onuradunarekiko lotutako pertsonak izatea. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arriskua: Tratu diskriminatzailea onuradunak hautatzean.

Bandera Gorriak

- a) Onuradunak hautatzean ez dira betetzen objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak

Bandera gorria gertatzen da laguntza ematen duen erakundeak ez duenean irizpide homogeneo bat norgehiagoka-erregimenean dirulaguntzak emateko prozeduretan onuradunak hautatzeko orduan. Prozedura horiek ez dute tratamendu bera jasotzen eta, beraz, lehia-prozedura ez da betetzen.

Arriskua: Interes-gatazkak ebaluazio batzordean.

Bandera gorriak

- a) Nahita eragitea onuradunen ebaluazioan eta hautaketan

Ebaluazio Batzordeko kideek nahita eragiten dute eskatzaileen ebaluazioan eta hautaketan, eskatzaile haietakoren bati mesede egiteko, ebaluazioa iraun bitartean haren eskabideari lehenetsunezko tratua emanaz, edo batzordeko beste kide batzuei presioa eginez.

Arriskua: Estatuko laguntzen araudia ez betetzea.

Bandera gorriak

- a) Finantzatutako eragiketak estatu-laguntzak dira, eta ez da bete Europako araudiak horretarako ezarritako informazio- eta jakinarazpen-prozedura.

Erakundeak ez du egiaztatu laguntza estatuko laguntza izan daitekeenik, aplikatu beharreko EBren araudiaren arabera, eta ez du bete Europako Batzordeari jakinarazteko prozedura.

Kontuan hartu behar da minimis kasuan ez dela beharrezkoa laguntzen berri ematea batzordeari.

Arriskua: Diru-laguntzaren xedea desbideratzea.

Bandera gorriak

- a) Onuradunak ez ditu funtsak bideratu diru-laguntzaren araudi erregulatuzailean ezarritako helbururako

Dirulaguntzaren funtsak ez dira bideratu Oinarri Arautzaileetan/Deialdian jasotako helburuetarako edo ez dira egikaritu.

Arriskua: Gehigarritasunaren printzipioa ez betetzea.

Bandera gorriak

- a) Eragiketen kofinantzaketa gehiegizkoa da.

Bandera gorria gertatzen da onuradunak laguntzak jasotzen dituen funts beretik baina erakunde desberdinetatik, eta, hortaz, irabazi edo baterako finantzaketa gehiegizkoa da. Horren harira, onuradunek ezin dute jaso eragiketa bakoitzean gastatu dutena baino finantzaketa gehiago. Bandera gorri hori gertatzen da baterako finantzaketa gastuaren

ehunekoetan jaso beharrean zenbateko finkoak jasoz egiten denean; horrek arrisku handiagoa eragiten du baterako finantzaketa gertatzeko.

- b) Kofinantzatzaile bat baino gehiagok eragiketa bera finantzatzen dutenean.

Laguntzen deialdietan zehaztu behar da laguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna beste EIE funts batzuetatik edo nazio edo erkidego mailako beste iturrietatik datorren finantzaketarekin. Kasu horretan, erakundearentzat arriskua dago gehigarritasun-arauak ez betetzeko.

- c) Ez dago hirugarrenek egindako ekarpenen euskarri den dokumentaziorik (hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diru-ekarpenak, etab.)

Ez dago hirugarrenek egindako ekarpenen euskarri-dokumentaziorik, noiz eta EIE funtsen erregelamendu-xedapenetan ezarritakoaren arabera, baterako finantzaketarako ekarpen bakoitzaren dokumentazioa egon behar duenean.

- d) Hirugarrenak emandako finantzaketa ez da finalista, eta ez dago hura banatzeko irizpiderik.

Hirugarrenen finantzaketarako hitzarmen edo akordioak ez denean berariaz adierazten finantzatutako zenbatekoak Europako Gizarte Funtsaren eragiketetara bideratzen direla. Bandera gorria ere gerta daiteke baterako finantzaketa bideratzen denean deialdiarena ez den beste helburu baterako.

- e) Onuradunak eragiketa bakoitzeko egiten dituen gastu eta sarrerren gaineko kontrolik eza.

Ez dago kontabilitate analitikorik gastu eta sarrerren kontrol dokumentatua eraman ahal izateko eragiketa motaren, proiektu motaren edo finantzaketa iturriaren arabera.

Arriskua: Dokumentuen faltsutasuna

Bandera gorriak

- a) Dokumentazioa faltsua, eskatzaileek aurkeztutakoa, hautaketa-prozesu baten hautatuak izateko xedez.

Eskatzaileek adierazpen faltsuak aurkezten dituzte eskabideetan, eta ebaluazio batzordeari sinetsarazten diote hautagarritasun-irizpide orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela. Laguntza lortzeko eskabidean eskatutako edozein agiri izan daiteke: sinatutako adierazpenak, informazio finantzarioa, konpromisoak, etab.

- b) Gastuak justifikatzeko dokumentu-euskarria manipulatzeari.

Fakturak manipulatzeko direnean edo faktura faltsuak aurkezten direnean, diruz lagundutako eragiketean ordaindutako gastuak kobratzeko.

Arriskua: Ez betetzea informazioari eta publizitateari buruz estatuko eta Europako Batasuneko araudian ezarritako betebeharrak.

Bandera gorriak

- a) Ez betetzea EGIF-k batera finantzatutako eragiketak laguntzeko informazio- eta komunikazio-betebeharrak.

Bai deialdi bat egiten duen erakundea bai amaierako hartzaileak behartuta daude laguntza edo eragiketa horiek EGIFen kontura finantzatuta daudela jakinaraztera eta zabaltzera, eta Europako Erkidegoko xedapenetan gaiari buruz ezarritakoa bete behar dute (RDCren 115. artikulua).

Arriskua: Auditoretza-aztarna galtzea

Bandera gorriak

- a) Erakundeak ez du eragiketaren dokumentazio egokia egin auditoretza-aztarna bermatzeko.

Eragiketen espedientean ez da erregistratuta geratzen auditoretza-aztarna bermatzea ahalbidetzen duen justifikazio-dokumentazioa. Adibide batzuk: besteak beste, gastuei, ordainketei, kontabilitateari, publizitateari eta egikaritzeari buruzko dokumentazioa edukitzea.

- b) Deialdiak ez du zehatz-mehatz ezartzen eragiketarik eratorritako gastuak nola dokumentatu behar diren.

Deialdiak ez du zehazten nola dokumentatu behar diren gastuak (gastuak justifikatzeko baldintzak, gastuaren izaeraren arabera), RDCren 131. Artikuluan ezarritakoaren arabera. Adibide batzuk honakoak dira: dokumentuak, fakturak eta froga-balio bera duten agiriak; agiri horiek kasuan kasuko araudi propioan edo nazionalean ezarritakoak izango dira.

- c) Deialdiak ez ditu modu argi eta zehatzean definitzen gastu hautagarriak.

Deialdiak ez du argi eta garbi zehazten zer gastu izan daitezkeen diruz laguntzeko modukoak, RDCren 65. Artikuluaren arabera, eta, beraz, Ziurtapen Agintaritzak egiaztatu ahal izango dituenak.

- d) Deialdiak ez du zehatz ezartzen zein izango den eragiketetan aplikatu beharko den kostuen kalkulurako metodoa.

Erakundeak ez du argi ezarri zein izango den eragiketetan aplikatuko den metodoa kostuak kalkulatzeko, lizitazioen RDCren 67. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

V. ERANSKINA: KODE ETIKOA ETA JOKABIDE-KODEA

Arrasateko Udalak iruzurrari eta ustelkeriari aurre egiteko zero tolerantzia politika publikoki adierazi du Adierazpen Institutuzional batean.

Udalak iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak martxan jartzeko prozedurak ditu, antzemandako arriskuak kontuan hartuta.

Prozedura horien barruan sartzen da, iruzurra prebenitzeko neurrien artean, Udaleko langile guztien jokabide-kode etiko bat zabaltzea. Kode hau funtsezko tresna da iruzurraren arloko balioak eta jokabideak transmititzeko, enplegatu publikoen jardura gidatu eta arautu behar duten printzipioak bilduz.

I.- Arrasateko Udaleko langileen eguneroko jarduerak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52.etik 54.era bitarteko artikuluetan jasotako printzipio etikoak betetzen direla adierazi behar du. Honako hau ezartzen dute artikuluko horiek:

VI. KAPITULUA

Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokabide-kodea

52. artikulua. Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokabide-kodea.

Enplegatu publikoek arduraz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte, Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari men eginez, eta honako printzipio hauen arabera jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoari dedikazioa, gardentasuna, zorrozatasuna, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura- eta ingurumen-ingurunearen sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko jokabide-printzipio publikoak errespetatzea.

Kapitulu honetan ezarritako printzipio eta arauak informatuko dute enplegatu publikoen diziplina-araubidearen interpretazioa eta aplikazioa.

53. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
2. Haren jardunak herritarren interes orokorrak asetzea izango du helburu, eta inpartzialtasunera eta interes komunera bideratutako kontsiderazio objektiboetan oinarrituko da, alde batera utzita jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak, bezeroak edo printzipio horrekin talka egin dezakeen beste edozein alderdi.
3. Zerbitzuak ematen dituzten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, mendekoeekin eta herritarrekin leialtasun- eta fede oneko printzipioen arabera jardungo dute.

4. Jokabide hori oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetuan oinarrituko da, eta jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, generoa, sexua, sexu-joera, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta bereizkeriarik eragin dezakeen edozein jarduera saihestuko du.
5. Abstenitu egingo dira interes pertsonala duten gaietan, bai eta beren lanpostu publikoarekin interes-gatazkak sortzeko arriskua ekar dezakeen jarduera pribatu edo interes orotan ere.
6. Ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute esku hartuko pertsona edo erakundeekiko finantza-eragiketetan, ondare-betebeharretan edo negozio juridikoetan, lanpostu publikoko betebeharrekin interes-gatazka eragin badezake.
7. Enplegatu publikoek ez dute inolako mesede-traturik onartuko pertsona fisikoen edo erakunde pribatuengandik, ezta justifikaziorik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardungo dute, eta interes orokorra lortzen dela eta erakundearen helburuak betetzen direla zainduko dute.
9. Ez dute eraginik izango izapideak edo administrazio-prozedura arintzean edo suntsiaraztean, bidezko arrazoirik gabe, eta, inola ere ez, horrek pribilegiorik badakar kargu publikoen titularren edo berehalako familia- eta gizarte-ingurunearen mesedetan, edo hirugarrenen interesak kaltetzen baditu.
10. Arduraz beteko dituzte dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak, eta, hala badagokio, epe barruan ebatziko dituzte beren eskumeneko prozedurak edo espedienteak.
11. Zerbitzu publikora dedikatzeko printzipioaren arabera gauzatuko dituzte beren eskumenak, eta ez dute zerbitzu publikoaren aurkako jokaerarik izango, ezta zerbitzu publikoak gauzatzean neutraltasuna arriskuan jartzen duen beste edozein jokabide ere.
12. Sailkatutako gaiak edo legez zabaltzea debekatuta duten beste gai batzuk isilpean gordeko dituzte, eta kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaiak buruz behar den diskrezioa izango dute, eta lortutako informazioa ezin izango dute erabili beren edo hirugarrenen onurarako, edo interes publikoaren kalterako.

54. artikulua. Jokabide-printzipioak.

1. Herritarrak, haien nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak arretaz eta errespetuz tratatuko dituzte.
2. Lanpostuari dagozkion zereginak arduraz eta ezarritako lanaldia eta ordutegia betetzeko dira.
3. Goragokoen jarraibide eta agindu profesionalak beteko dituzte, non eta ez diren ordenamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena; kasu horretan, berehala jakinaraziko dizkiete kasuan kasuko ikuskapen-organoei.
4. Herritarrei informazioa emango diete ezagutzeko eskubidea duten gai edo gaiak buruz, eta beren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko erraztasunak emango dizkiete.

5. Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte baliabide eta ondasun horiek erabiliko beren edo hurbileko pertsonen onurarako. Era berean, zaintzeko betebeharra izango dute.
6. Ohiko usadio sozial eta kortesiazkoetatik harago doan edozein opari, mesede edo zerbitzu, baldintza onuragarrietan, baztertu egingo da, Zigor Kodean ezarritakoari kalterik egin gabe.
7. Dokumentuak jasota eta gordeta egongo direla bermatuko dute, gero arduradunei helarazteko eta entregatzeko.
8. Prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta edukiko dituzte.
9. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak beteko dituzte.
10. Beren nagusiei edo organo eskudunei helarazita dauden unitateko eginkizunen garapena hobetzeko egokitzat jotzen dituzten proposamenak jakinaraziko dizkiete. Horretarako, enplegatu publikoen edo administratuen proposamenak jasotzea zentralizatzeko eskumena duen instantzia egokia sortzea aurreikusi ahal izango da, zerbitzuan eraginkortasuna hobetzeko
11. Herritarrei arreta eskatzen duten hizkuntzan emango zaiela bermatuko dute, baldin eta lurraldean ofiziala bada.

II.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa alde batera utzita, PRTR neurrien betearazpenean parte hartzen duten kudeaketa-, jarraipen- eta/edo kontrol lanak egiten dituzten pertsonak arreta berezia jarriko dute Etika eta Jokabide Kode hau betetzean EEMko funtsekin finantzaturako proiektuak kudeatzeko prozeduraren honako alderdi eta fase hauetan:

- 1) Kasuan kasuko gaien aplikatzekoa den Batasuneko, estatuko eta/edo eskualdeko legeria zorrotz beteko da, bereziki honako gai hauetan:
 - Gastuen hautagarritasuna.
 - Kontratazio publikoa.
 - Laguntza-erregimenak.
 - Informazioa eta publizitatea.
 - Ingurumena.
 - Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- 2) BEMeko funtsen kudeaketarekin, jarraipenarekin eta kontrolarekin zerikusia duten langile publikoek gardentasunean oinarrituta beteko dituzte beren eginkizunak. Printzipio horrek argitasuna eta egiazkotasuna dakar barnean zein kanpoan ezagutarazten den edozein informazio edo daturen tratamenduan eta hedapenean.

Printzipio horren arabera, arretaz erantzun behar zaie informazio-eskaerei, interes publikoko arrazoengatik sentikortzat jo daitekeen informazioaren osotasuna inola ere arriskuan jarri gabe.
- 3) Arreta berezia jarriko da gardentasun-printzipioa betetzeko:
 - BEMeko funtsek finantzaturako laguntzak emateko prozesuen emaitzak ezagutarazten eta jakinarazten direnean.
 - Kontratazio-prozedurak garatzen diren bitartean

- 4) Gardentasun-printzipioa betetzeak ez du esan nahi langileek konfidentzialtzat jotzen den informazioa behar bezala erabili behar ez dutenik, hala nola, datu pertsonalak edo enpresetatik eta beste erakunde batzuetatik datorren informazioa. Hala ere, ezin izango dute erabili norberaren edo hirugarrenen onurarako, faborezko traturen bat lortzeko edo interes publikoaren kalterako.
- 5) Interes-gatazka egongo da funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.

Interes-gatazka bat sortzen da enplegatu publiko batek bere interes pribatuak bere betebeharrak profesionalen aurretik jartzeko aukera izan dezakeenean.

III.- Kontu berezia izango da langile publikoek interes-gatazkarik sor ez dezaten, BEMen funtsek finantzaturako eragiketetan, kontratazio-prozedurei eta laguntza publikoak emateari dagokienez.

A) Kontratazio publikoa.

- Interes-gatazkako arriskuren bat identifikatzen bada, honako hauek egingo dira:
 - Gertakariak inplikaturako pertsonarekin aztertzea, egoera argitzeko.
 - Pertsona hori kontratazio-prozeduratik kanpo uztea.
 - Hala badagokio, prozedura bertan behera uztea.
- Benetan interes-gatazkarik sortu bada, zehapenen arloko lege-araudia aplikatuko da.

B) Laguntza publikoak.

- BEMeko funtsekin finantzaturako laguntzak hautatzeko, emateko eta kontrolatzeko prozesuetan parte hartzen duten enplegatu publikoek ez dute parte hartuko interes pertsonala duten gaitan.
- Interes-gatazka sortzen bada, zehapenen arloko lege-araudia aplikatuko da.

IV.- Etika eta Jokabide Kode honen printzipioak ulertzea eta betetzea BEMeko funtsekin finantzaturako eragiketak kudeatu, jarraitu eta/edo kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzten pertsona guztien erantzukizuna da.

Hala ere, komeni da erantzukizun espezifiko batzuk zehaztu eta zehaztea, lanbide profilen arabera.

Langile guztiek: betebeharrak hauek dituzte:

- Kodean xedatutakoa irakurri eta betetzea.
- Lankideei, hornitzaileei, laguntza teknikoko enpresei, laguntzen onuradunei edo udalarekin interakzioan diharduen beste edozein pertsonari lan ingurunean zabaltzen laguntzea.

Zerbitzu-arduradunek, aurrekoen gain, betebeharrak hauek dituzte:

- Kodeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzen laguntzea.

- Hori betetzeko eredu izatea.

Zuzendaritza-organoak.

- Langile guztiek Kodea ezagut dezaten sustatzea, bai eta Kodea betetzea eta haren aginduak betetzea sustatzeko betebeharra ere.